


Denbora.


1 Lanbideak

Enekok surfa egin nahi du. Olatzek patinatzailea izan nahi du. Tenisean ikasteko gogoia du Eneritzek. Mikelek, berriz, boxeo izar izateko ametsa du. **Baina zein dira bakoitzak behar dituen tresnak?**





2 Itzalak

Nekaneri lurrera erori zaio txupetea. Anaia zaharrak aurkitu du, eta ez dio Nekaneri eman nahi. Itzal pila bat jarri dio elkarren ondoan, eta itzal ona zein den asmatzen badu bakarrik itzuliko dio txupetea. **Lagundu iezaiozu Nekaneri!**



3 Kopiatu koadroz koadro

Gorkak bere bizkar-zorro berriaren marrazkia egin du, baina beste hiru behar ditu, lagunei oparitzeko. **Lagundu iezaiozu lan astuna arintzen.**




Erantzunak: 1.-a-patinatzailea, b-tenislaria, c-boxeolaria, d-surfilaria, d-boxeolaria. 2.-f. 4.-3 eta 5. 5.-d eta h.

-pasa


4 Margotu eta asmatu

Mirenek bizikletan ibili nahi du, baina ezin du asmatu zein den garajeko giltza. Aitaren giltza aurkitu du, baina beste giltza guztiekin batera nahastu du, konturatu gabe. Zein dira giltza berdinak?



5 Bikiak

Denek berdinak diruditen arren, hortzak garbitzeko eskuila hauetatik guztietatik bi bakarrik dira berdinak. Asmatuko al zenuke zein diren esaten?





eskulana

Alkandora lepo itxurako pertxa

Arropak zuek egindako pertxa batean txukun-txukun gorde nahi? Eredu honi jarraituz horrelakoak egin ditzakezu, zure irudimenari esker. Ez da lan zaila, ikusi:

Beharrezko materiala

- Pertxa bat
- Egunkari orri batzuk
- Paper distiratsu horia.
- Orri zuri eta moreak.
- Itsasgarri hidrosolublea
- Pintzela
- Guraizeak
- Arkatz markatzailea



Egiteko modua

- 1 Pertxa bat hartu, eta lekederakin bustitako egunkari paperekin bildu.




- 2 Pertxa nahikoa loditu duzunean, paper distiratsu horiarekin bildu. Azken paper hori ere itsasgarriz busti behar da, ondo-ondo itsats dadin.



- 3 Orri zuri batean alkandoraren lepoa, poltsikoak eta hiru botoi marraztu. Gero, guraizekin moztu.



- 4 Paper morean marraztu falta zaizun lepokoaren zatia, botoiak gainean jartzeko tira luze bat, poltsikoa osatuko duten marra lodi eta mehe batzuk, eta alkandora politago egiteko pinporta batzuk marraztu.



- 6 Moztuta daukazun paper puska guztiak txukun-txukun itsasi, alkandora forma emanez.